

Euskarazko DSaren barneko elipsiez

Beñat Oihartzabal

CNRS-IKER

Laburpena

Artikulu honetan euskarazko DSaren barnean elipsiak nola gerta daitezkeen ikertzen da, osagaiak batzerakoan izaten duten ordena nolakoa izan den argitzeko xedearekin. Horretarako Cinqueren (2012) orokorketa bat bereziki baliatzen da. Honen arabera, izenaren modifikatzaileen elipsiak ez dira nolahi gertatzen. Alabaina, testuinguru egokietan izenaren beraren elipsia beti egin daitekeelarik, modifikatzaileen elipsiek bi baldintza bete behar dituzte: i) izena ere elipsiko modifikatzailearekin batean isildua izatea, ii) batze ordenako hurrenkera delarik oinarria, izenaren eta modifikatzaile isilduaren artean den beste modifikatzailearik ahoskatua ez izatea. Hipotesi horri jarraikiz, elipsiari dagozkion datuek batze ordenaren berri ematen baitigute, bost modifikatzailearen arteko elipsi jokoak molde sistematiko batean euskaraz ikertzen dira. Azterketa horren ondotik ondorio gisa ateratzen den batze ordena, Cinquek aurkitu zuena bezalakoa da, salbu erlatiboen batze lekuari dagokienean. Horrek sorrarazten duen zenbait galderarekin bururatzen da artikulua.

0. Ikergaiaren aurkezpena*

Hemengo artikulua Cinquek (2005, 2012) aspaldi honetan DSaren egituraz lantzen duen azterbideari jarraikiz egina da, eta beraz antisimetriaren

* Ikerlan hau MINECOren FF2011-26906 proiektuari esker egina izan da. Emaiza hauetara ekarri gaituen ikerketak Europar Batasunaren ikerketarako, teknologia garatu eta erakusteko Zazpigarren Esparru Programaren laguntza ere jaso du 613465 diru-laguntza hitzarmenaren bitartez.

Laburdurak: AS (aditz sintagma), DS (determinatzaile sintagma), Erak (erakuslea), Erl ([per-paus] erlatibo [murrizgarria]), Izond (izenondo [kalifikatzailea]), Ord ([zenbatzaile] ordinala), PS (posposizio sintagma), Zenb (zenbatzaile [kardinala]).

Elipsiaren ondorioz isildu osagaiak marraturik agertzen ditugu adibideetan. Haien aitzinean agertzen den izarñoak elipsia ezgramatikala dela adierazten du: edo ahoskatzea beharrezkoa delako (eta orduan bigarren izarño bat agertzen da parentesiaren ezkerrean, ikus adibidez (5b)), edo, nire azterketaren arabera modifikatzailea osoki eskas delako izenaren proiektzioan (ikus adibidez (6b)). Azken egoera honek adibideen azterketa sintaktikoa zailtzen du batzuetan; ikus 7. oh., eta bereziki 2.3-5. ataletako adibideak. Eskerrik beroenak ematen dizkiet adibideen epaien finkatzen lagundu nauten ikertzaileei, bereziki, M. Bedaxagar, M. Duguine, M. Duhalde, U. Etxeberria, R. Etxepare, A. Irurtzun, B. Lazkano eta J. Salaberriari.

printzipioetan oinarriturik. Jadanik ikertua izan da, DSetako osagai batzuk (izena, izenondoa, zenbatzailea, erakuslea), hipotesizko egitura unibertsal batetik abiatuz, euskarazko DSetan zer gisaz ordenatzen diren (Oihartzabal 2006).¹ Hemengo lan hau ildo beretik doa, azterketa beste modifikatzaile batzuetara zabalduz haatik, eta DSen barneko elipsiei behatuz.

Cinquek (2012) DSen barneko elipsiak aztertutik, (1)ean emana den orokorketa egiten du:

- (1) a nominal modifier can be silent only if the NP and all other modifiers which are merged between the NP and the modifier in question are also silent.

(1)eko orokorketak bi baldintza jartzen ditu izen modifikatzaileak elipsiz isilduak izateko:

- (2) a. Elipsiak ISa ere estaltzea, hots, modifikatzaileekin batean ISa bera isildua izatea;
 b. Modifikatzaile bat elipsiz isiltzen bada, eta hura baino lehenago proiektzioan batu² den beste modifikatzailearik bada, hau edo hauek ere isilduak izatea.

Lan honetan euskaran (1)eko orokorketari dagozkion bi baldintzak bat bestearen ondotik ikerturik zenbatetaraino betetzen diren ikusiko dugu, eta ondorioz, euskarazko datuetan oinarriturik, elipsien araberako modifikatzaileen batze ordena proposatuko. Gisa horretan, ikerketak altxatzen dituen zenbait zailtasun agertuko ditugu.

1. DSaren barneko modifikatzaileen elipsiak eta ISarena

1.1. Zenbatzaileak³

Kaynek (2012: 42, 44) ondoko adibideak emanik (4) ohartarazi du zenbatzaile bat DSen barneko elipsi batean isiltzen delarik, izena bera ere isildu beharra dela:

- (4) a. Mary has written four papers this year, whereas John has written only three papers.

¹ Ikus Artiagoitia (2006a, 2006b: 171-175) ere, ikuspegi kritiko bat izateko.

² Usaiari jarraikiz, *batu* aditza eta *batze* izena baliatzen dituz hizkuntzalari generatibistek ingelesez ‚merge‘ erratan dutenaren itzultzeko.

³ Artikuluan *zenbatzaile* izena soilik erabilia denean zenbatzaile kardinalai dagokie.

- b. Mary has written four papers, whereas John has only written (*four) squibs.

(4a) adibideak erakusten du ingelesez DSeko izena elipsiz isil daitekeela. (4b) adibidean, berriz, izena ahoskatua izanik zenbatzailea elipsiz isiltzen bada, perpausa gaizki eratur da. Kaynek ingeleseko datuak beste hizkuntzetan ere berdin ager daitezkeelako hipotesia eginik, Cinquek (2012), (1)eko orokorketa aitzinatu zuen. Beha dezagun, bada, euskaraz hala gertatzen denetz:

- (5a) a. Jonek hiru liburu erosi ditu, eta Maiak sei ~~liburu~~.
b. Jonek hiru neska agurtu ditu, eta Maiak *(~~hiru~~) mutiko.

(5a) eta (5b) adibideen artean, kontraste nabarmena da: (5a)n, izena isiltzen bada elipsiaren ondorioz, perpausa ongi eratur da. Aitzitik, (5b)n izena ahoskatua baita, (2a)k aurreikusi bezala, zenbatzailea ez da elipsiz isildua, bestela ongi eratur litzateke perpausa.⁴

Orain ikus dezagun, hala gertatzen denetz beste modifikatzaileekin.⁵ Hots, beha dezagun, Cinquek italierako datuak aztertuz egin duen bezala, beste modifikatzaileetara heda ote daitekeen Kayneren oharpena.

1.2. Ordinalak

- (6) a. Jonek iaz bigarren etxea erosi zuen, baina orain [hirugarren etxe -a] ere nahi du.
b. Jonek bigarren auto bat erosi zuen iaz, eta orain *(bigarren) moto bat ere nahi du.

(6a)ko adibideak erakusten du ISa elipsiz isil daitekeela, zenbatzaile ordinala bakarrik utzirik sintagman eta determinatzailea honi zuzenean loturik. Aitzitik, (6b) adibideak agerian ematen du ISa ahoskatua bada, ordinala ez dela elipiz isildua: noski, *bigarren* ahoskatu gabe ongi eratur da perpausa, baina ez elipsiari esker, baizik eta modifikatzailerik batere gabe eratur delako DSa.⁶

⁴ Elipsiz isildu sintagmak sintaktikoki osoki aktiboak dira, ahoskatuak balira bezala. Artikuluan adibideen epaiak araberan emanak dira. (5b) adibidea aztertzerakoan, adibidez, *hiru mutiko* osagaia *hiru mutiko* balitz bezala irakurtzen da.

⁵ Toki eskasez ez dut ikertuko DS posesiboen elipsia, ez eta PS adnominalena edo *beste* bezalako modifikatzaileena ere.

⁶ Kontuan izan, testuinguru egokietan, pragmatikak modifikatzailea perpausuan balitz bezalako interpretazioa bidera dezakeela. Franko aise da holako testuingururik asmatzea (6b) adibidean (edo berdin (7b), edo (8b) bezalakoetan). Horrek, halere, deusetan ez du aldatzen sintagmanen egitura. Arazo bera agertuko da 2.3-5 azpiataletako adibideetan bereziki.

1.3. *Erlatiboak*⁷

- (7) a. Eman zenidan liburua hemen dut, baina [Jonek eman zidan ~~liburu~~ -a] ez dut aurkitzen ahal.
 b. Erosi ditudan sagarrak onak dira, baina (*erosi ditudan) udareak nahiago ditut.

(7a)ko adibidearen elipsizko irakurketa argi da. (7b)n, berriz, erlatiboaren elipsirik ez da nire irakurketan (erosi ditudan udareez ari garelako interpretazioaz, ikus 6. oh.).

1.4. *Izenondoak*⁸

- (8) a. Jonek atorra gorri bat erosi du, Maiak, aldiz, ~~atorra~~ zuri bat.
 b. Jonek atorra gorri bat erosi du, Maiak, aldiz, gona (*gorri) bat.

Beste modifikatzaileekin bezala, izenondoa duen DSetan izena bakarrik isil daiteke elipsiz (8a). Aldiz, izena ahoskatzen bada, ez da izenondoren elipsirik gertatzen (8b).⁹

1.5. *Erakusleak*

Erakuslearekin ere, datuak berdin dira.

- (9) a. Jonek liburu hauek eskaini dizkit, baina nik ~~liburu~~ haiek nahi nituen.
 b. Jonek sagar haiek eman dizkit, baina nik udare (*hauek) nahi nituen.

(9a) izenaren elipsia garbi-garbia da. (9b)ko adibidean ere, gauzak argi dira: hartan erakuslea ez da interpretatzen ahal elipsiz isildua balitz bezala. Alabaina, (9b)n erakuslea elipsiz isildua balitz, ongi eratua litzateke adibidea (cf. 4. oh.).

⁷ Cinqueren (2012) azterketan toki desberdinetan batzen dira erlatibo murrizgarriak eta ez-murrizgarriak. Ez naiz kontu horietan sartuko hemen, erlatibo murrizgarrietara mugatuz ene azterketa.

⁸ Izenondo erlazionalak ez ditut kontuan hartzen hemengo azterketan. Seguraz ere, bereiztekoak dira batze ordenari dagokionean; ikus (14. oh. (ii)).

⁹ Artiagoitiak (2006: 158 (37)) jadanik azpimarratu zuen puntu hori euskaran.

1.6. *Lehen ondorioa*

Cinqueren orokorketako lehen puntua (ikus (2a)) euskaran betetzen denetz ikusteko, euskarako bost modifikatzailearen kasuak aztertu ditugu. Ondorioa argi da: italieran bezala, euskaran ere modifikatzaile elipsirik ez da gertatzen, izena ere (ISa, hots, hemengo aztermoldean) modifikatzailearekin batean elipsiz isiltzen ez bada.

Orain, (1) orokorketaren bigarren puntua, (2b)n zehaztua, azter dezagun.

2. Modifikatzaileen elipsiak eta haien batze ordena

(1)eko orokorketak, eta bereziki (2b)ko baldintzak, aurreikuspen zehatzak egiten ditu elipsietan gerta daitezkeen modifikatzaile isiltzeez. Alabaina, elipsiak egitean DSen barneko osagaien batze ordenaren errespetatzeko obligazioa adierazten du. Hain zuzen, puntu hori euskaran nola betetzen den aztertu nahi genuke orain.

Cinquek (2005) ondoko hurrenkeraren arabera finkatzen du Greenbergen 20. unibertsaleko osagaien batze ordena, ikusmolde horretan hizkuntza guzietan kausitzen dena:

(10) Erak > Zenb > Izond > I

Gure azterketaren aiseago bideratzeko, ordena horretarik abiatuko gara, hartan aipatzen diren modifikatzaileak kontuan harturik. (2b)ko baldintzaren azterketa beste bi modifikatzailetara (ordinalak, erlatiboak) zabalduko dugu gero.

(10)ean izenondoa eta zenbatzailea dira hurrenez hurren izenari hurbilenak. Hortaz, (2b)ko baldintzak egiten dituen aurreikuspenak hauek dira:

- (11) a. Zenbatzaile elipsirik ez daiteke izan, baldin izenondoa ahoskatua bada.
- b. Erakusle elipsirik ez daiteke izan, baldin izenondoa ahoskatua bada.
- c. Erakusle elipsirik ez daiteke izan, baldin zenbatzailea ahoskatua bada.

(11)ko aurreikuspen horiek betetzen diren bezala ikusiko dugu orain, adibideetan behar diren modifikatzaile elipsiak eginez. Ondotik, (10)ean aipatzen ez diren ordinalen eta erlatiboen batze lekua elipsi jokoan arabera zein den ikertuko dugu.

2.1. *Zenbatzailea eta izenondoa duten DSak*

Ikus dezagun, bada, (11a)ko aurreikuspena betetzen ote den zenbatzailea eta izenondoa duten DSetan. Beha diezaiegun (12)ko adibideei:¹⁰

- (12) a. Jonek hiru atorra zuri erosi ditu, eta nik lau ~~atorra~~ (zuri) garbitu.
 b. Jonek hiru sagar berde erosi ditu, eta nik ~~*(hiru)~~ sagar gorri saldu.

(12a) adibideko bigarren perpausean izenondoa aukerazkoa da (ikus berdin, Artiagoitia 2006: 167 (54)), hots, interpretazio batean *nik erosi lau atorren* koloreaz ez da deus erraten. Erran gabe doa, elipsi jokoen azterketa beste interpretazioaren arabera egitekoa dela. Adibide horrek erakusten du [Izond [I]] sintagma elipsian sartuz, perpausa ongi eraturik gelditzen dela, (2b)ren arabera, zenbatzailea izenondoa baino gorago proiektioari batu zaio-lako seinale.

(12b) adibideak, berriz, hau erakusten du: lehenik, modifikatzaileak batzeko orduan ~~*[Izond [Zenb [I]]]~~ osagairik ez dela sortzen, bestela, (1)i jarraikiz, adibidea ongi eratua izanen baitzen; bigarrenik (10)eko batze ordenaren arabera den ~~*[Zenb [Izond [I]]]~~ sintagman zenbatzailea ezin elipsiz isil daitekeela, baldin izenondoa ahoskatua bada. Ohart, (12b)n bi modifikatzaileak ahoskatuak badira, (2b)k arautzen duen bezala, adibidea ongi eratua dela: *Jonek hiru sagar berde erosi ditu, eta nik hiru sagar gorri saldu*.

Orain ikus dezagun zer gertatzen den erakuslea eta izenondoa duten DSetan elipsiak modifikatzaile horietako bat harrapatzen duenean.

2.2. *Erakuslea eta izenondoa duten DSak*

(10)i dagokion egituratik abiatuz, (1)en arabera, (12)ko kontrastea aurkitu behar genuke erakuslea eta izenondoa duten DSetan ere. Goazen ikus, bada:

- (13) a. Etxe berriak gustatzen zaizkit, ~~etxe~~ (berri) hauek ordea, ez ditut maite.
 b. Etxe berri haiek gustatzen zaizkit, ~~etxe~~ zahar ~~*(hauek)~~ ordea, ez ditut maite.

(13a) adibidean, (12a)n bezala, bi interpretazio egin daitezke: bat elipsirik gabe (izenondorik izan gabe DSan) eta bestea izenondoa elipsiz isildua

¹⁰ Adibideen irakurketaren errazteko, elipsia euskarazko hiz ordenaren arabera erakusten da haietan. Gogoan izan, haatik, jarraikitzen gatzazkion azterbidean elipsia (10)eko batze ordenako osagaietan gertatzen dela, izena izenondoaren gaineko espezifikatzaile gunera mugitu aurretik.

izanik. Bigarren interpretazioari dagokion azterketan [Izond [I]] osagaia isildua da DSan, osagai hori (10)en araberakoa izanik. (2b)ri jarraikiz, beraz, osagaiak proiektzioan batzerakoan, [Erak [Izond [I]]] osagaia dugula ondoriozta dezakegu.

Euskarazko erakusleak, beste modifikatzaileak ez bezala, ezin daitezke elipsiz isil. Gure testa besteetan bezala eginez, ikus dezakegu (13b) ez dela ongi eratua, ezin interpreta daitekeelako elipsizko erakusle bat baleuka bezala. Kontuan izan, erakusle elipsiz isildu bat perpausean balitz, sintaktikoki indarra balukeela, eta (13b)ko DS aztertuak determinatzaile bat ere balukeela, ongi eratua izanik.

Ageri denaz, elipsi jokoak (2b)ko baldintzaren arabera aztertu ondolan, (11a,b)ko aurreikuspenak konplituak direla ikus dezakegu. Gisa horretan baietsia da izenondoak eratzean zenbatzaileek eta erakusleek (10)ean duten lekua; biak izenondoak baino gorago dira. Orain ikus dezagun haien beren artean zein den bestea baino gorago batzen proiektzioan.

2.3. Erakuslea eta zenbatzailea duten DSak

Ikus ditzagun ondoko adibideak:

- (14) a. Hiru gurpil haiek higatuak dira, lau **gurpil** #(***hauek**), aldiz, berri-berriak.
 b. Hiru gurpil haiek higatuak dira, (hiru) **gurpil** hauek, aldiz, berri-berriak.

(14a) adibidean, erakuslearen elipsia ezgramatikala da. Halere, gorago erran bezala, morfema horri dagokion ezaugarri orokorragoa da hori, hemengo azterketan ikertzen diren beste modifikatzaileek ez dutena. Ez da, beraz, (2)ri buruzko ondorioz atera ahal adibide hone-tarik.

(14b)ko adibideari ematen diogun interpretazioan, zenbatzailea elipsiz isildua da. Egia erran, ez da nahi genukeen bezain kontu garbia. Alabaina, zenbatzailea onartzen duen irakurketa hori (berri-berriak diren gurpilak hiru direlarik) elipsiaren ondorioa izan gabe, pragmatikak testuinguru horretan baimentzen duen zerbait izan daiteke (ikus 6. oh.). Halere, aurreko ataleko (13a)ko adibidean bezala, kontsideratuko dugu elipsizko azterketa egoki dela hemen ere. Kontuan izan, gauzak hala izanik, eta (2b)ri jarraikirik, ateratzen den batze ordena [Erak [Zenb [I]]] dela.

2.1-3 azpiataletako azterketen ondotik, Cinqueren orokorketari jarraikiz egin daitezkeen (11)ko hiru aurreikuspenak betetzen direla erran daiteke. Orain azter dezagun zer gertatzen den ikergaian sartu ditugun beste bi modifikatzaileekin: ordinaletan eta erlatiboekin.

2.4. Ordinalak

Ordinalak euskaraz ez dira izenondoen alderdian agertzen, erran nahi baitu izenaren eskuinaldean, baina, zenbatzaileak bezala, izenaren ezkerraldean. Harelere, (10)eko ordenaren arabera, bai zenbatzaileak, bai izenondoak, biak izenaren ezkerraldean dira batze ordenan. (2b)ri jarraikiz eta elipsiak baliatuz agerian ezarriko dugu batzerakoan zein ordenatan ematen diren, alde batetik, ordinala eta izenondoa eta, bestetik, ordinala eta zenbatzaile kardinala.

2.4.1. ZENBATZAILE ORDINALA ETA IZENONDOA DUTEN DSAK

Ikus dezagun ondoko adibide pareak:

- (15) a. Bigarren zaldi beltza eskapatu da, [hirugarren zaldi (beltz) -a] barrukian da.
 b. Hirugarren zaldi beltza harrapatu dugu, (*hirugarren) zaldi zuria ez.

Lehen adibidea garbia da interpretazioaren aldetik: hartan izenondoa elipsiz isildua izan daiteke (ez da beharrezkoa, noski). Puntu hori (2b)ren argian azterturik, erran dezakegu [Izond [I]] osagaia sortzen dela modifikatzaileak batzerakoan, eta hortaz izenondoa elipsian sar daitekeela. Hortik ateratzen den ondorioa da ahoskatua den beste modifikatzailea, ordinala, izenondoa baino goragoko posizio batean dela batze ordenan.

(15b)ko datuak ere aski garbi dira, ene iduriko: ez da ordinalaren elipsirik adibide hartan; hots, testuinguru berezia asmatu gabe, ez dugu aditzen zaldi zuria hirugarrena dela. Horregatik, (15b)k ere baiesten du (15a)n errana, erran nahi baitu ordinala zenbatzailea baino gorago dela batze ordenan, zeren izenondoa ahoskatua bada, ordinala ez baita elipsiz isildua.

2.4.2. ZENBATZAILE ORDINALA ETA ZENBATZAILE KARDINALA DUTEN DSAK

Zenbatzaile ordinaleri eta kardinaleri dagozkien datuak ez dira argi. Alabaina, badirudi euskaraz, zenbatzaile kardinalik nekez erabil daitekeela *lehen* edo *azken*-ez beste ordinaletan.¹¹

- (16) a. ??bigarren hiru lasterkariak
 b. ??bi hirugarren lasterkariak

¹¹ Badira (i) bezalako adibideak, iduriz, kontrakoa erakusten dutenak:

(i) Nor dira bi hirugarrenak?

Badaiteke *hirugarren* izen dela kasu horretan. Beste izenik nekez sar baitaiteke holako sintagma batean (ikus (16b)).

Aitzitik, *azken* eta *lehen*, zenbatzaile+*garren* duten beste ordinalak ez bezala, arazorik gabe erabiltzen dira zenbatzailea duten DSetan.¹²

- (17) a. lehen hiru kapituluak
b. azken hiru urteetan

Horregatik, atal honetako testen moldatzeko *azken* eta *lehen* erabili behar ditugu nahi ala ez. Ikusiko dugun bezala, ordea, ondorioak doi bat nahasiak ditugu adibideetan. Ikus hauek:

- (18) a. Iaz lehen hiru lasterkariei eman zieten dirua, aurten [~~lehen~~] bi lasterkari -ei] bakarrik.
b. Aurten (zerrendako) lehen hiru izenak hautatu dituzte, baina iaz [azken (?hiru) izen -ak] aukeratu zituzten.
c. Azken bost egunak ordainduak izanen dira, baina ez [lehen (?bost) egun -ak]

Nire intuizioaren arabera, (18a) ez da ongi eratua *lehen* ordinala ahoskatua ez bada. Alabaina, (18a) adibidea ordinalaren elipsirik gabe irakurririk, *biei* sintagmak testuinguru horretan ez dagokion interpretazio espezifikoa du. Hots, franko argia da adibide horretako kontrastea molde natural batean adierazteko *lehen* ahoskatu behar dela: ..., *aurten lehen biei bakarrik*. Datu hau (2b)en arabera azterturik, ondoriozta daiteke modifikatzaileak batzera-koan sortzen den osagaia [Ord [Zenb [I]]] dela. Alabaina, (2b)k aurreikusten du batze ordena horretan zenbatzailea ahoskatuz geroz, ordinala elipsis ezin isil daitekeela.

(18b,c) adibideak ere alde horretara doaz, nahiz berriz ere interpretazioak ez diren nahi bezain garbiak. Izan ere, modifikatzaileak batzera-koan, [Ord [Zenb [I]]] osagaia baldin badugu, (2b)ren arabera, zenbatzailea elipsi pean isiltzea arazorik gabekoa izan behar litzateke. Bizkitartean, zalantza izan daiteke bi adibide horietan zenbatzailea interpretazioan sartuz, 6. oharrak aipatu kasuan ez ote garen. Nahiz zailtasun hori nola azal ez dakidan, ez dut uste aski den (18a)tik atera ondorioaren deuseztatzeko. Horregatik, batze ordenan, ordinala zenbatzailea baino gorago dela besterik gabe onartuko dut. Beraz, aitzineko puntuan (2.4.2), ordinala erakuslea baino beherago kokatzen zela ikusi baikeuen, orain ateratzen den hurrenkera hau da: Erak > Ord > Zenb > Izond > I.

¹² Bestalde, *azken* / *lehen* eta kardinalak ordenatzeko orduan euskarak ez du nahitazko hurrenkerarik finkatzen. Izan ere, hurrenkeretako bat markatugabea baldin bada ere, biak erabil baitaitezke (*lehen bi kapituluak* / *bi lehen kapituluak*). EPG corpusean *lehen* / *azken* + *bi* / *hiru* sekuentziak bilatuz egin bilaketaren arabera, maiztasunaren aldetik ordinala > zenbatzailea ordena da alde handiarekin nagusi. Zenbatzailea > ordinala ordena Iparraldeko testuetan bereziki agertzen da, nahiz euskalki horietan ere beste ordena erabiliagoa den.

2.5. *Perpaus erlatiboak*

Perpaus erlatibo murrizgarriak ezker muturrean dira euskaraz. Hala ez direnean (era guziz markatuan egungo euskalkietan), eskuineko muturrean (ikus 15. oh.). Ikus dezagun modifikatzaile elipsiek zer erranen diguten batze ordenan erlatiboek duten lekuaz. Horretarako, orain arte bezala, perpaus erlatiboak beste modifikatzaile batekin DS batean emanik, elipsi jokoak eginen ditugu. Aitzinetik finkatu genuen ordenaren arabera franko gora batzen den ordinaletik hasiko gara, ondotik urraska jautsiz.

2.5.1. ZENBATZAILE ORDINALA ETA PERPAUS ERLATIBOA DUTEN DSAK

- (19) a. Idatzi duzun bigarren eleberria luzea zen, [~~idatzi duzun~~ hirugarren eleberri -a], aldiz, ez.
 b. Idatzi duzun hirugarren eleberriari bi sari eman zizkieten, [idatzi dudana (*~~hirugarren~~) eleberri -ari], aldiz, bihirik ez.

(19a) ongi eratua da erlatiboa elipsi pean izanik. Adibidea (2b)ko baldintzaren arabera aztertuz gero, ikus daiteke, ordinala ahoskatzen bada, [Erl [I]] sintagma elipsiz isil daitekeela, ordinala erlatiboa baino gorago izanik; beraz: [Ord [Erl [I]]] osagaia da batzerakoan sortzen dena.

(19b)n ez da elipsi irakurketarik egiten (nire interpretazioan bederen, *hirugarren* sintagman sartzen bada, pragmatikaren bidez egiten da). Hori da, hain zuzen, (2b)k aurreikusten duena. Alabaina, [Ord [Erl [I]]] osagaien erlatiboa ahoskatzen bada, ordinala ezin daiteke elipsiz isildua izan.

Orain so egin dezagun zer gertatzen den erlatibo bat eta zenbatzaile bat duten DSetan.

2.5.2. PERPAUS ERLATIBOA ETA ZENBATZAILE KARDINALA DUTEN DSAK

- (20) a. Erosi ditudan bost sagar arras ustelak ziren, ~~erosi ditudan~~ sei sagar, aldiz, arras onak.
 b. Idatzi ditudan hiru eleberriek sari bat irabazi dute, baina [idatzi dituzun (*~~hiru~~) eleberri -ek], aldiz, bihirik ez.

(20)ko adibideak (2b)ren argitan aztertzen baditugu, batze ordena hau dugu: [Zenb [Erl [I]]]. Alabaina, (20a)n adibidean, zenbatzailea ahoskatua izanik, [Erl [I]]] osagaia da isildua, eta adibidea ongi eratua da.

(20b) adibidean, nire intuizioaren arabera zenbatzailea ez da elipsiaren parte ((19b) adibidean ordinala bezala), nahiz, holakoetan gertatzen ohi denaz, duda ez den osoki baztertzen ahal. Kontraste argia da, halere, bi adibideen artean: (20a)n zenbatzailea ahoskatua izanik, erlatiboaren elipsia beharrezkoa baita.

Gauzak horrela izanik, ondorioa da zenbatzailea perpaus erlatiboa baino gorago batzen dela izenaren proiektzio hedatuan.

2.5.3. ERLATIBOA ETA IZENONDOA DUTEN DSAK

Gauza ezaguna da maiz elkarrri lotuak izan direla erlatiboak eta izenondoak gramatika sortzailearen tradizioan. Ez dugu hemen gai honetan sartzeko asmorik. Orain arteko azterbidea segituko dugu, bi osagaiak dituzten DSetan elipsi aldizkatuak eginez. Ikus ditzagun ondoko adibideak:

- (21) a. Erosi duzun atorra gorria ez da polita, [(erosi duzun) atorra] urdin-a], aldiz, bai.
 b. Erosi duzun beroki gorria ez da beroa, [eman didaten beroki (*gorri)-a], aldiz, bai.

(21a) adibidean, izenondoa ahoskatua da eta erlatiboa aise elipsian sartzen da (polita den atorra urdina erosi duzula interpretaturik).

(21b)ko datuak, ordea, ez dira hain argi menturaz, adibidea interpretatzerakoan izenondoa aski aise sar baitaiteke sintagman.¹³ Halere, orduan ere, nire irakurketan, pragmatikazko inferentzien bidez egiten da elipsiarena bezalakoa den interpretazioa.

Datuak horrela harturik eta (1)eko orokorketaren arabera aztertuz, ondorioak hauek dira: lehenik perpaus erlatiboa batzen da eta ondotik izenondoa, gisa horretan [Izond [Erl [I]]] osagaia sortuz. Horrela, izenondoa ahoskatua izanik ere, elipsiak erlatiboa (2b) bortxatu gabe harrapa dezake. Alderantziz, erlatiboa ahoskatua bada, izenondoa ez da elipsian sartzen, (2b)k aurreikus-ten duen bezala.

Ikerketan kontuan hartu ditugun bost modifikatzaileen artean, erlatiboa da, gure azterketaren arabera eta elipsien irizpidea baliatuz, izenaren proiektzioan lehenik batzen.

¹³ Inguruan intuizio galdez ibiliz erabili ditudan molde bereko beste adibideekin ere, ez dut erantzun garbi-garbirik atera ahal izan. Test gisa ondoko adibideak baliatu ditut bereziki, izenondoak aldizkatuz:

- (i) a. Eman dizuten auto berria/handia/zuria ez dabil ongi, [niri utzi didaten auto (*berria /*handi/*zuri) -a], aldiz, bai.
 b. Utzi didaten auto berria/handia/zuria ez dabil ongi, [zuri eman dizuten auto (*berria /*handi/*zuri) -a], aldiz, bai.

Hiztun gehienentzat izenondorik gabeko interpretazioa lehenetsia da (i)eko adibideetan. Konpara, kontrastez, erlazio izenondoa baliatuz moldatua den (ii)ko adibidea (zeinetan elipsizko interpretazioa, behar-beharrezkoa izan gabe, denek lehenesten baitute):

- (ii) Aurten izan dituzun arazo ekonomikoak handiak izan dira, [niri sortu zaizkidan arazo (ekonomiko) -ak], ez tikiagoak.

3. DSkos osagaien batze ordena euskaran

Azterketa honen bukaerara heltzearekin azterketaren ondorioak ateratzen ahal ditugu. Baliatu ditugun bost modifikatzaileen batze ordena (22)koa da:

(22) Erak > Ord > Zenb > Izond > Erl > I

Ordena hori ez dator guziz bat Cinquek (2005 2012) guk aztertu modifikatzaileentzat ematen duenarekin, hark erlatiboa izenondoan (eta zenbatzaileen) gainetik ezartzen baitu; cf. Cinque (2012 (30a)):

(23) Cinqueren batze ordena:
[Dem.. [A.. [Numord.. [RCrestr.. [Numcard.. [A.. NP]]]]]]

Izenondoei eta erlatiboei buruzko datuak italierazko bi adibidetan agertzen ditu Cinquek; batean, erlazio izenondoa da (*la reprise morale/economica*), eta bestean, maiztasunezkoa (*i clienti occasionali/abituali*). Guk, berriz, kolorea, tamaina eta zahar-berritasuna baliatu ditugu gure lanean. Izenondoan izaera ere kontuan hartzekoa bide da, hala nola Cinquek (23)an ordinalen gaineko izenondo berezi batzuk (*beste bezalakoak*) ere sartu baititu. Euskaran berean ongi ageri da, erlazio izenondoak kalifikatzaileak baino hurbilago izaten direla izenetik (ordena franko zurrin batean)¹⁴ eta badirudi horrek eragina duela gure gaian (ikus 13. oh. (ii)). Ikerketa barnago eraman behar da beraz, bai eta ere beste hizkuntza gehiagotan egiaztatu haren balioa. Alabaina, (1)en arabera, elipsi jokoak batze ordenako osagaietan egiten dira; hortaz hizkuntza batetik bestera, ez litzateke funtsezko alderik izan behar haietan.

Euskarako datuetan egonik, (22)ko ordenak beste arazo bat sortzen du. Cinqueren (2012) arabera elipsia mugimenduari lotuak dira. Greenbergen 20. unibertsaleko modifikatzaileak kontuan harturik, arazorik gabe erator daiteke euskarazko hitz ordena: Zenb > I > Izond > Erak (Oihartzabal 2006). Elipsi jokoak ere ongi azaltzen direla ikusi dugu hemen (2.1). Ez da horrela gertatzen erlatiboa sartzen delarik. (22)ko ordenatik abiatu, eta Cinquek DSen barneko mugimenduentzat ematen dituen oinarritzko baldintzak (elipsietan bezalakoak direnak) errespetaturik, ezin erator daiteke euskarak DS erlatibodunetan duen hitz ordena: Erl > Ord > Zenb > I > Izond > Erak. Euskarara zaharrean izan bide zen beste ordena (erlatiboa izenaren eskuinean eta determinatzailearen aitzinean ematen duena)¹⁵ erdiets daiteke, ez, haatik,

¹⁴ Ikus kontraste hau: *arazo politiko handiak* vs **arazo handi politikoak*.

¹⁵ Bourciez-ek duela mende bat pasa Iparraldeko herrietan itzultzea eman zuen frantsezko testuan erlatibo bat bazen izenondoa ere zuena: *ces feuilles de chou et ces fruits pourris que mangent les porcs* (cf. Aurrekoetxea & Videgain 2004). Eskuinaldeko erlatibo arrunta erabili zuten itzultzaile batzuek. Testuak bat bestearen ondotik kurrutzen hasirik, holako erlatiboa erabili

gaur egun euskalki guzietan normalean erabiltzen dena.¹⁶ Badirudi euskarazko erlatiboen ordenaren azalpenak mugimendu berezia eskatzen duela. Ez dut uste ezinezkorik baden holako eginkizunean. Ordea, beste aldi baterako utzi beharko ditugu gai horretazko gogoetak.

Aipamenak

- Artiagoitia, Xabier. 2006a. «Basque adjectives and the functional structure of the noun phrase». *ASJU* XL, 107-132.
- Artiagoitia, Xabier. 2006b. *Euskarazko izen-sintagma: arkitektura eta egitura funtzionala*. Euskal gramatika: Sintaxia ikerlanerako proiektua, Euskal Filologia, kodea: CUC8/1-D00114-11, EHU.
- Aurrekoetxea, Gotzon & Xarles Videgain. 2004. *Haur prodigoaren parabola Iparaldeko 150 bersiotan*. *ASJU*ren Gehigarriak, IL. Bilbo: EHU-UPV.
- Bianchi, Valentina. 2002. «Headed relative clauses in generative syntax». Part I: *Glottolinguistics* 6 : 7, 197-204. Part II, *Glottolinguistics* 6 : 8, 1-13.
- Cinque, Guglielmo. 2005. «Deriving Greenberg's Universal 20 and its exceptions». *Linguistic Inquiry* 36: 3, 315-332.
- Cinque, Guglielmo. 2012. «A generalization concerning DP-internal ellipsis». *Iberia: An International Journal of Theoretical Linguistics* 4: 1, 174-193.
- De Vries, M. 2002. *The Syntax of Relativization*. Utrecht: Landelijke Onderzoeksschool Taalwetenschap.
- Kayne, Richard S. 2012. «A note on grand and its silent entourage». *Studies in Chinese Linguistics* 33: 2, 71-85. [http://www.cuhk.edu.hk/ics/clrc/scl_33.2/Kayne.pdf]
- Oihartzabal, Beñat. 2006. «DSaren barneko zenbait ordena kontu». In B. Fernández & I. Laka (arg.), *Andolin Eguzkitza gogoan. Essays in honor of professor Eguzkitza*. Bilbo: UPV/EHU. [Ingeleseko bertsioa in U. Etxeberria, R. Etxepare & M. Uribe-Etxeberria (arg.). 2012. *Noun Phrases and Nominalization in Basque*. Amsterdam: John Benjamins. 267-282.]

zuten lehen hamarrek (Uztaritze, Haltsu, Itsasu, Lekorne, Donostiri, Maule, Suhuskune, Amotzte, Arboti-Zohota, Gamue-Zohazti) erlatiboa izenondoaren ondotik eman zuten denek, hots, Izena > Izond > Erl > Erak (edo artikulua mugatzailea) ordena baliatu zuten: *aza hosto eta fruitu ustel xerriek jaten dituzten hek* (Haltsu), adibidez. Cinqueren azterbidean haizu diren mugimenduak eginez, bi urratsez erdietsen da ordena hori (22)ko ordenatik abiatuz. (Izenondoa erlatiboaren eskuinean izanez ere gauza bera litzateke).

¹⁶ Cinquek emanikako (23)ko ordenatik abiatutik ere, ezin erdiets daiteke euskarazko DS erlatibodunetako osagai ordena.